**Sukarrieta taldea** **Esperientzia**

# ESKOLA SAIAKUNTZARAKO ZENTROA, Sukarrieta: Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko


| | |
|---|---|
| **Zenbakia** | **78. alea** |
| **Data** | 2003(e)ko maiatza |
| **Idazlea** | Sukarrieta taldea |
| **Saila** | Esperientzia |


*Ikusi erlazioanaturiko artikuluak*

*Ikusi erlazionaturiko materiala*

**Artikulu honetan gure ikerketa baten emaitzen berri emango dizuegu.**

**Ikerketa honekin ikaslearengana gehiago hurbiltzea ahalbidetuko digun lan eredu bat lortu nahi izan dugu, ebaluazioa hobekuntza elementutzat erabiliz, eta kontuan izanik ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua beraien autorregulazio prozesutik, jarrerak barne, burutzen dutela.**

Gure esperientzia edo ikerketa Sukarrietako zentroan garatu da, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan (SESZ). Bizkaiko ikastetxeen zerbitzura dagoen hezkuntza baliabide bat da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Bilbao Bizkaia Kutxako Gizarte Ekintzak orain dela 20 urte egin zuten hitzarmen baten bidez bideratua. Beraz, adinez nagusia da, baina oraindik gaztea.

Bertan bi helburu nagusi ditugu:

- Ikasleei begira, "ingurune fisiko

eta pedagogiko bat eskaintzea naturara hurbiltzeko, eta komunikaziorako eta elkarbizitzarako esparrua zabaltzea".

- Eta irakasleei begira "leku bat eskaintzea, bai esperientzia pedagogikoetarako eta bai materialak sortzeko, betiere berrikuntza pedagogikoaren testuinguruan".

Helburu horiek astebeteko egonaldi batean garatzen dira. Astero hainbat zentro eta herritako 110 ikasle inguru elkartzen ditugu 25 orduko lan-proiektu batean eta, bide batez, jende berriarekin bizitzeko aukera eskaintzen diegu. Ikasturtean zehar horrelako 30 aste betetzen ditugu, eta 3.200 ikasle eta 150 tutore pasatzen dira.

Gure lanaren ardatzak Ingurumen Hezkuntza (IH), Lantegien arloa eta Hezkuntza Ikerkuntza dira.

Azken urteotan, zentroaren jarduera Ingurugiro hezkuntzari buruzko lan-proiektu batzuen garapenean oinarritu da, irakaskuntza-ikaskuntza eraikitzailearen eskemaren ildotik abiatuta, ebaluazioa ardatz izanik, eta bost ingurumen problematiken inguruan: basoa, ura, Urdaibaiko itsasadarra, lurra (nekazaritza eta abeltzaintzari buruzkoa) eta planeta berdea (kontsumo ohiturari buruzkoa) (1. irudia).

Oraingo honetan, alderdi horietatik guztietatik ebaluazioari erreparatuko diogu. Aipatutako lan-proiektu horien programan hiru fase bereizten ditugu:

1. Hasierako Diagnostikoa

2. Fase Prozesuala

3. Fase Gehikorra

Programa horien ardatza ebaluazioa dugu. Ebaluazio eredu honekin ikaslea bere irakaspenez ohartzeaz gain, bere

ikaskuntza prozesuaz jabetzea ere lortu nahi dugu, hau da, irakaspen metakognitiboa erdiestea. Era horretan, alde batetik, ikasleak bere barne prozesuarekiko inplikazioa eta ardura izatea erraztuko da (eta hau IHk eskatzen duen jarrera hartze helburuarekin lotuta dago) eta, bestetik, bere ezaguera eraikitzen

ikasiko du. Jarraian fase horien barrenak ikusiko ditugu:

**1. fasea** : fase honen helburuak motibazioa, problematikaren aurkezpena eta sentsibilizazioa ditugu. Erabiltzen ditugun erremintak aurretiazko

ideiak ikertzeko probak eta eduki sarea dira.

1. faserako ikasleen aurretiazko

ideiak ezagutzea ezinbesteko abiapuntua da. Gure ustez, edozein irakaskuntza-ikaskuntza prozesu ezin da hasi

ikasleek ezagutzen dutena jakin barik.

Aurretiazko ideiak oso tinkoak izaten dira, lotura sakonak dituzte burmuineko egituran. Horregatik, oso zaila da haiek zuzentzea edo aldatzea.

Baina, orduan, noiz zuzentzen dira? Orokorrean, aurrerapen edo abantaila bat ikusten denean gertatzen da ideien aldaketa, jarreren kasuan, batez ere. Kontzeptuen aldaketa, aldiz, askotan garapen ebolutiboarekin batera gertatzen da.

Hasierako diagnostiko indibiduala egiteko erabiltzen ditugun erremintak hauexek dira: aurretiazko ideiak ikertzeko probak.

1995ean egin genuen ikerketa dugu oinarri (2. irudia). Eta horrez gain, astero, ikasle eta talde guztiei egiten dizkiegunak. Ikasle bakoitzari proba bat edo bi egiten dizkiogu. Problematika bakoitzak bere-berezko probak ditu. Adibidez, 3. irudian ikus ditzakegu lan-proiektu batzuen probak.

Bigarren erreminta eta taldearen prognosia egiteko erabiltzen dena eduki sarea dugu (4. irudia).

Eduki sare hori talde osoarekin egiten dugu, ahoz. Irakaslearen galderarekin eta ikasleen erantzunekin osatzen joaten gara eta ideia berriak aurrekoekin lotzen saiatzen gara.

Bi erreminta hauek hausnartu eta gero, ikasleen garapen gune hurbilera hurrera gaitezke, eta nondik has gaitezkeen jakingo dugu.

**2. fasea** : fase honen helburuak

ezaguera garatzea, jarduerak burutzea eta kontzientziazioa lortzea dira.

Bigarren fase honetan hiru memento ezberdin antolatzen ditugu, bakoitza bere berezko erremintekin :

*1. Prest!*

*2. Helburuen irudikapenaren egiaztapena.*

*3. Erregulaziorako eta autorregulaziorako beste mekanismo batzuk.*

*1. Prest!* Saio baten lehenengo mementoan kokatzen gara. Horretarako, Gowin-en V erreminta erabiltzen dugu. V-ak lan egiteko prozesua idatzita aurkezten du, era sintetiko eta grafikoan (5. irudia).

V-a era honetan antolatzen da:

* Galdera gakoa: saioaren markoa definituko du. Hurrengo guztiari zentzua emango dio.

* Zer egingo dugu?: saioaren gutxieneko helburuak jasoko ditu.

* Nola egingo dugu?: metodologia eta planifikazioa batuko ditu.

* Zertarako?: galdera gakoaren erantzuna eta saioaren xedea adieraziko ditu. Ingurumenarekin zerikusia duen jarrera aldaketaren bat jasoko du.

Adibide moduan, basoa ezagutu baino lehen egin daitekeena ikus dezakegu hemen.

Horrekin guztiarekin zer lortzen dugu?:

- Helburuak adostea:

Prozesu honek ikasleen eta irakaslearen helburuak lotzen laguntzen du.

- Helburuen irudikapena:

Ikasle bakoitzak egin behar duenari buruzko irudia egiten du bere buruan.

- Ekimenaren aitzinapena eta planifikazioa: ikasleak lana egiteko planifikatu egiten du eta emaitza aurreikusi egiten du.

- Ebaluazio irizpideak adostea:

Hasiera batean helburuak beraiek ebaluazio irizpide bihurtzen dira. Nahiz eta gero prozesuan zehar, irakaspen berriak egitearekin batera, ebaluazio irizpide berriak agertzen diren. 6.

irudian adibide bat ikus daiteke.

*2. Helburuen irudikapenaren egiaztapena* . Aurretik esandakoarekin helburuak agerian gelditzen dira, eta normalean irteera bat egiten dugu ingurunera. Behin lekuan bertan gaudelarik (basoan, errekan, paduran, kostaldean nahiz araztegian, errausteko labean edo ortuan) saioaren irakaspen

ekintzak hasi baino arinago, ea helburu horiek ikasle guztiek bereganatu dituzten egiaztatzen saiatzen gara.

Guk helburuen irudikapenak egiaztatzeko galdetegia proposatzen dugu

(egia/gezurra). Bereganatu dituzten

edo ez jakiteko informazioa emango du eta, horrekin batera, lekua eskainiko dio erregulazioari.

*3. Erregulaziorako eta autorregulaziorako beste mekanismo batzuk* . Hiru mekanismo ezberdin erabiltzen ditugu ikaslea ikasten ari denaz eta bere

ikaste prozesuaz jabetzeko. Hau da lehenengoa:

Saioan zehar, gaiaren berezko edukiak lantzean mekanismo didaktiko batzuk txertatzen dira, jardueren garapena erregulazioz eta autorregulazioz blaitzeko asmoz.

Hiru edo lau galdera zehatz izaten dira batzuetan, ikasleak bizi izan duen ikaste prozesuari buruzkoak. Adibidez, *zer berri ikasi duzu?, zergatik?, zer da garrantzitsuena?, zertarako?, zer falta zaizu gaia menperatzeko?*... Beste batzuetan ikasitakoari izenburua jarrarazten diegu. Saioari dagokion leloa asmatzeko ere eska dakieke, batez ere, ingurugiro hezkuntzari dagozkion jarrerazko edukiei lotutakoak.

Irakaskuntza-ikaskuntza saioaren jarduera multzoa gurpil baten moduan ikusiko bagenu, esandako mekanismoak gurpilaren erradioak izango lirateke, gurpila helburuen ardatzarekin

lotuko luketenak. Gurpilaren eta ardatzaren arteko lotura sendoa den heinean, ez da orekarik galduko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobeto egingo du aurrera.

Bigarren mekanismoarekin eduki sarean ikasitako edukiak jaso eta antolatzen dira (bai kontzeptuzkoak, bai prozedurazkoak eta baita jarrerazkoak ere) (7. irudia).

Honen inguruan, ideia hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Irakasleak galderak egiten ditu eta ikasleek ozenki erantzun behar dute aurreko ideiekin lotuz. Hitzez adierazi behar horrek bultzatu egiten du norbera bere buruan ideiak antolatzera.

- Ikasle guztiak egindakoaren jakitun bihurtzen dira, eta berdinen arteko

ikasketa gertatzen da naturalki.

- Irakasleok ikasitakoaren jakitun

egiten gara.

- Akatsak, gaizki ulertuak, erdizka ulertuak eta abar zuzentzeko aukera

ere eskaintzen du.

- Ikasitakoa egunero jasotzen da

eduki sarean eta, horrela, "egunkari" baten funtzioa ere betetzen du.

- Bertan jarrerazko edukiak ere jasotzen dira. Bukatzeko, saioaren hasieran Gowin-en V-an egindako planifikazi

oan oinarrituz, ikasleek burututako prozesua ebaluatzen dute irakaslearekin. Zer lortu den, zer ez, zergatik, zer falta izan zaigun, beste baterako utzi behar izan duguna...

**3. fasearen** funtzioa programatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan egindako aurrerapenak egiaztatzea da: ezaguera berriak nola berenganatu dituzten ikasleek, nola erlazionatu dituzten lehendik zeuzkatenekin, nola trebatu diren prozedura berrietan, aurrera egin ote duten jarrera hobekuntzan...

Horretarako bi erreminta erabiltzen ditugu: bat

oso indartsua, komunikazioa, eta bestea sinpleagoa, galdetegi bat.

Astearen bukaeran Sukarrietan dauden talde guztiek beste taldekideei komunikatzen diete astean zehar egindako lana, ikasitakoa edo ateratako ondorioak (8. irudia). Komunikazio hori prestatzeko gidoi bat egin behar izaten dute eta, horretarako, irakasleak taldeari era honetako galderak zuzentzen dizkio:

*"Zer kontatu behar diegu besteei gai honi buruz?*

*"Zer jakin beharko genuke gai honetaz? Eta zer da garrantzitsuena?"*

*"Zer uste duzu galdetuko lizukeela irakasleak hori ikasi duzula ziurtatzeko?"*

Eta guztien artean erabakitzen denarekin prestatzen da komunikazioa.

Ohiko azterketa batekin konparatuko bagenu, zera esan genezake:

erantzunetan, komunikazioaren gidoiaren ardatza osatzen denean azterketaren galderak definitzen ari direla; eta gero, taldeka, puntuz puntu prestatzen duten komunikazioan azterketa erantzuten dutela.

Horrela, irakasleak, eta neurri batean ikasleek, ikusten dute zer izan den adierazgarriena, zer harrigarriena, zer sentitu izan duten beraiengandik hurbil, zer bizi izan duten oso urrunetik, zein izan den gaiarekiko sortu den lotura afektiboa, zenbateraino bereganatu duten ikasitakoa... Hitz bitan, ikasketa esanguratsuaren oinarria osatzen duten elementu nagusiak. Irakasleak, bere parte-hartzearekin ikasleak elementu horietaz konturatzea lortzen baldin badu, erregulazio eta autorregulazio zikloa biribildu dela esan dezakegu.

Azken ekintza besteen aurreko komunikazio saioa izaten da. Guretzat komunikatzea benetako ikaste esanguratsuaren azken pausoa da. Ikasitakoaren funtzionalitatea giza komunikazioarekin soilik gertatzen dela pentsatzen dugu.

Eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren azken ekintza bezala, galdetegi bat pasatzen zaie ikasleei beraiek eta, bide batez, irakasleok ere, egindako

ahaleginaz eta aurrerapenez jabetzeko.

Eta horrela biribiltzen da gure autorregulazioarako eredua.

Ondorio moduan hau esan dezakegu:

Barne prozesu eraikitzaile sendo baten bidetik, ikaslea bera izango da bere ezagueraren eraikitzailea eta, beraz, bere jarreren garapenaren autorregulatzailea. Prozesuaren memento guztietan non dagoen jakingo du, nora jo behar duen, eta nola jokatu ere bai.

Pentsatzen dugu horrela soilik lortuko dela ingurumen hezkuntzaren funtsezko betebeharra **gaur egun zein etorkizunean suerta daitezkeen ingurumen arazoei aurre egiteko irtenbideak asmatzeko ahalmena duten pertsonen heziketa, eta ez errezeten aplikazio hutsera mugatuko direnena** . Â•

**Bibliografia**


- JORBA, J.; SANMARTÃ, N.: "La funciÃ³n pedagÃ³gica de la evaluaciÃ³n", in Aula, 20. (1993).

- ALCUDIA, R. et al.: AtenciÃ³n a la diversidad, GraÃ³, Bartzelona, 2000.

- COLL, C.: Aprendizaje escolar y construcciÃ³n del conocimiento, PaidÃ³s, Bartzelona, 1997.

- COLL, C. eta beste: El constructivismo en el aula, GraÃ³, Bartzelona, 1993.

- CASTELLÃ", T.: "Procesos de cooperaciÃ³n en el aula", in Cooperar en la escuela, GraÃ³, Bartzelona, 1998.

- CEEP: Ideas previas y EducaciÃ³n Ambiental, FundaciÃ³n BBK-Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1998.

- CEEP: "La evaluaciÃ³n como autorregulaciÃ³n" in Aula, 116, (2002).

- NOVO, M.: La educaciÃ³n ambiental. Bases Ã©ticas, conceptuales y metodolÃ³gicas, Universitas, Madril, 1998.


**IGO**


**31: Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den herritartasunari ekin zaio**

**Lanbide Heziketa berria martxan da**

**Ikasturte berriko datuen artean dantzan**

**ARAMENDI JAUREGI, Pello:**

**LA SALLE ikastetxea, Donostia: Haurren neuronak estimulatuz eta ordenatuz**

**Brasil: Brasilen ere pobreziak kolore beltza du**

**32: Egonezina areagotzen ari da EAEko Haur Eskoletan**

**Ikasle Mugimenduak**

**ETXEBESTE, Amaia; LOPEZ DE LUZURIAGA, Jose Inazio; RAZKIN, Josean:**

**Hezkuntza alderdi politikoen ahotan**

**Uruguay: Montevideoko 'Gure haurrak' programa**

**33: Ekarpen interesgarriak plazaratzen ari da zenbait ikasle talde**

**Haur Eskolak: lehena, oraina eta geroa**

**IKASBATUAZ: Bide berriak urratuz**

**XIRULA MIRULA: Badok hamalau**
**Xirula Mirulak DBHrako bideo-zintak kaleratu ditu**

**BAI EUSKARARI:Goazen denok abestera!**

**HIRUKI taldea: Liburu egokien bila**

**34: Hezkuntza ere Euskal Herrian dabilen aire berriekin doa.**

**HEKO Kolektiboa**

**SANTOS, Miguel Angel:**

**EIEF-FERE:Euskal Eskola**

**Akordio berri bat hirugarren milurtekoaren atarian**

**SARTAGUDA eta LODOSAKO ikastolak: Errioxako mugaraino**

**SEASKA Haur Eskola, Beasain: nola bizi duten plastika**

**SAREAN: Ikastetxe publikoetako zuzendariak bildurik**

**35: Hauteskunde sindikalak hausnarke-tarako arrazoi dira.**

**OCHOA DE ERIBE ROYO, Maria Pilar:**

**UMEZAINTZA Haur Eskola. Arrasate: Urarekin jolasten**

**HEZIBIDE: Matrikulazio garaian ere, elkarlanari lehentasuna emanez**

**Hauteskunde sindikalak**

**Hezkuntzaren normalkuntza**

**MARTINEZ, Begoña:**

**Joana Albret bibliotekonomia mintegia: Ikastegietan zer-nolako liburutegiak?**

**PIARRES LARZABAL kolegioa, Ziburu: antxetaren hegalkadak zabalduz**

**Egoera berria sortzeko nahia baino zerbait gehiago somatzen da**

**Udal Ikastolak**

**DARUNBE, Jone; OLIVERO, Teresa:**

**LANBIDE HEZIKETA: Atzerriko enpresetan lan-praktikak**

**UDAL HAUR ESKOLA, Irun: Harreman psikomotrizitatea. Lanerako proposamen eta jarrera bat 0-3an.**

**Hego Euskal Herriko Erreformako lehen promozioak burutuko ditu bere ikasketak aurki.**

**Euskal Nazionalismoa eta Hezkuntza Publikoa: Ikastolen publifikazioa**

**ELLAKURIA, Pello:**

**DUFAU, Aines; SOLORZANO, Pantxika: Kantiruri: kantu bilduma berria**

**Praktikatzen: Eraldaketa prozesuak ikastetxean**

**Euskal ikasleek III. Biltzar Nazionala ospatuko dute**

**Kalitatea lortzeko bidean**

**VADER, Marinus:**

**Buru funtzionamenduaren pedagogia. Armelle Geninet irakaslearen ikerlanak**

**Euskal Ikasleen III. Biltzar Nazionala**

**Sarean Elkartearen ondorioak**

**BEGOÑ'AZPI ikastola, Bilbo: Osasunaren heziketa**

**ERENTZUN ikastola, Biana: Proiektuz eta ilusioz betetako eraikina**

**Praktikatzen: Eraldaketa motak**

**Praktikatzen: Eraldaketaren plangintza**

**Haur Hezkuntza eta espezialistak**

**ARAMENDI JAUREGI, Pello: Espainiako estatuko Hezkuntza helbideak Interneten**

**KONTSEILUA eta Hezkuntzaren Gizarte GUNEA normalkuntza bilatzeko baliogarri**

**Holandako Lanbide Heziketa. Autoikasketa ardatz.**

**Garai berrien ateetan euskal hezkuntzaren historia propioa idazten hasteko prest**

**Ibaizabal proiektua. Egitasmo zabal bezain osoa**

**AGIRRE, Nekane:**

**Gelak haurrez bete dira**

**Ikusten ikasi, a ze abentura!**

**ARDUTZA ikastola, Gasteiz: Sorkuntza tailerrak.**

**MONTESSORI, Maria**

**042: Prestakuntza ildo berriak irekitzeko beharra gero eta nabariagoa da.**

**Euskara nerabezaroan. DBH eta DBHOn euskararen erabilera sustatzeko zenbait ideia**

**GOÑ'I, Jesus Mari:**

**Ordenagailuak? Bai,**

**LABIAGA ikastola, Bera: JUUL, galtzailerik gabeko hauteskundeak**

**SUMMERHILL, SUTHERLAND NEILL, Alexander**

**043: Onditz, haurrik gabeko munduan bizitzera zigortu duten haurra**

**Zergatik galarazi pertsona bati irakuketa-idazketaren gaineko ezagutzaren eskuratzea sei urteak bete aurretik?**

**Curriculum desberdinen gelak**

**PIAGET, Jean**

**GUNEAk bere lehen Adostasunen Txostena aurkeztu du.**

**ETXEBERRIA, Joana:**

**Betea elkartea. Ingeleseko irakasleen topaleku**

**Euskal Euskara nerabezaroan. Nerabeok hasi gara pausoak ematen**

**FREINET, Célestin**

**045: Sortzen-Ikasbatuaz elkarte bateratua eratu da Euskal Eskola Publiko Berriaren alde.**

**Sortzen-Ikasbatuaz elkarte bateratua eratu da**

**HEKO: Hezitzaile eta komunikatzaileen kolektiboa**

**REICH, Wilhem**

**046: Hezkuntza Nazionalak SEASKAri: publikotasuna frantsesa gehiago irakastearen truke.**

**Hezkuntzarako Aholkularitza Zerbitzuak. Laguntza pedagogikoen nondik norakoak**

**CARBONELL, Jaume:**

**Haur txikienen heziketa. Haur Hezkuntza aztergai Ikastolen Elkartearen jardunaldietan**

**Euskara nerabezaroan: Euskara Ostadar Proiektuan**
**Erabilera garatzetik, erabileran eroso sentitzera**

**HEGOA, Gasteiz: Mundua beste era batera ikusteko saiakera**

**Ingelesa ikasten 4 urterekin hasi?**

**FOCAULT, Michel**

**Erantzun arrakastatsua Udako Topaketa Pedagogikoak euskaraz egitearen proposamenari**

**Kuadrillategi proiektua**

**0 - 3 urte bitarteko haurraren garapen psikologikoa**

**I Hik Hasi Udako Topaketak: Erantzuna, ezin hobea**

**VIGOTSKI**

**049: Gauzak aldatzeko eta hobetzeko sustraietara jo behar da**

**Modenako haur eskolak**

**EIZAGIRRE, Ana; ZUBIZARRETA, Imanol:**

**Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa**

**Nola nahi ditugu Haur Hezkuntzako gelak?**

**Ikasleek gainditu dute ikasturtea**

**Hik Hasi Udako Topaketak**

**ROGERS, Carl**

**Arian-arian, etenik gabe, bidea eginean**

**Heziketa, guztion erantzukizuna**

**ESTÉ‰VEZ, Xosé**

**Hurrengo uztailean berriro topaketak**

**EZAMA ESNAOLA, Felix: Kristau Eskola Euskal Hezkuntza Sisteman**

**Zatoz jolastera!**
**bideoa kaleratzear dugu**

**GARDNER, Howard.** ***Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (I)***

**Lanbide Heziketa eta euskalduntze prozesua**

**Baionako Uda Leku elkartea hil ala biziko egoeran**

**Paulo Freire**
**lau haizetara**

**Kili eta Kolo**
**2 urteko haurrekin lantzeko materiala**

**GARDNER, Howard. Adimen anitzen teoria: Hezkuntza jomuga (eta II)**

**Reggio Emilia. Italiatik Euskal Herrira**

**HOYUELOS, Alfredo:**

I. Ikasle Eguna ospatu da Amurrion

Hatz eta behatz
IKAS Pedagogia Zerbitzuaren bertso-ipuin proposamena

Euskal irakaskuntzari egindako erasoen aurrean, mugi gaitezen!

NOVAK, Joseph D.

Euskal Herria, bizi nahi duen herria

Guk, geure Eskola. Euskal irakaskuntza, aurrera!

ESTELA, Rosa: Saharako Smarako Heziketa Berezia

ELLIOT, John. Berrikuntza heziketa praktikak hasita

Zabaltzen: euskalgintzaren zutabeari eraso

Talentu aparteko haurrak. Hauentzat ere heziketa berezia

ANAUT, Loli:

BIURDANA institutua, Iruñea: Nolako ikaslea halako lana
Zer behar du? Hori eman nahi diot

DECROLY, Ovide-Jean

Nicaragua. Beste errealitate bat.

ROBLETO, Fernando:

CARDENAL, Fernando:

MONDRAGON unibertsitatea: Hizkuntzen psikopedagogian aditua naiz.
Lizentziatura berria ezarri da aurten Mondragon Unibertsitatean

FLECHA, Ramon:

Erne! Badatoz II. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

FREIRE, Paulo

Zuzendaritza taldeak. Ikastetxeetako eragile

BOISEKO IKASTOLA: Ameriketako euskal ikastola

KOHLBERG, Lauwrence

Hezkuntza Erkidegoa ere EAEko hauteskundeen emaitzei begira

Etorkinak eskolan. Elkarbizitza bideratuz

GARMENDIA, Joxe Fernando:

TEBEROSKY, Ana:

II Hik Hasi Udako Topaketak

GOLEMAN, Daniel: Adimen emozionala, autokontrolean aurreratzen

Aschero sistema euskal
curriculumerako ekarpena

Karmele Alzueta saria hezkuntza berriztapen proiektuentzat

APPLE, Michael:

Euskal Herriko Lanbide Eskolak nazioarteko eskolekin harremanetan

GARCIA, Maite: Eskoriatzako Irakasle Eskolaren 25 urteak: iraganari eta geroari begira

Hik Hasi Udako Topaketak

Idafe: autoerrealizazio bidean
Balioak lantzeko programa berria

Kili-Kili aldizkaria eraberritu da

HAMILTON, David

Itziar Barriola, Iparraldetik argi egin diguzu: mila esker

Gure ikasliburuak, geuretik abiatuta

ETXEBERRI, Mixel:

II. Topaketa Pedagogikoak arrakastaz burutu ziren

IGELDOKO HERRI ESKOLA: Zumeta proiektua

1923ko andereñoen lan-kontratua

Haurrek hezkuntzarako duten eskubidea bermatu egin behar da

MATA, Marta:

The Beatles euskaraz
Rock & Orff taldeak DBHn musika lantzeko material berria aurkeztu du euskaraz: The Beatles CD-ROMa

Hik Hasiren "Zatoz jolastera!" bideoak Miguel Altzo ikasmaterialenn kalitate saria jaso du

Historiako zertzeladak: Mikelete postuetako eskolak

Zorionak Erein, 25 urteotako ekarpenagatik

IZTUETA, Anjeles:

TURIEL, Elliot

SALBATORE MITXELENA ikastola, Zarautz:

Gazteentzako euskarazko komikiak

Musika Irakasle Euskaldunon II. Topaketa emankorra izan da

Historiako zertzeladak: Maria Dolores Goia Mendiola andereñoa

Urte berri on, ikasturte hobeari!

Emakumea hezkuntzan. Gehiengoa bai, baina zertan?

ASKAGINTZA erakundea: Drogak larrugorrian

URTXINTXA ESKOLA: *Euskal jolasen bilduma* CD-ROMa da produktu berriena

Historiako zertzeladak: Bilboko Euskal Eskolak (1908-1918)

Hezkuntzaren kalitatea

BILGUNEA:

ETXAGUE, Kamino: Talde kooperatiboen lana ingurunearen ezagutza arloan

COIRA, Patxi: Haur Hezkuntzako lehen zikloaren Arautze Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan

Historiako zertzeladak: Behartsuen unibertsitatea: arte eta lanbide eskolak Euskal Herrian

Unescok dio euskara desagertzeko arriskuan dagoela

MARCHESI, Alvaro:

SAN JOSE ikastetxea; Donostia: urte osoan ateak zabalik

Historiako zertzeladak: Libe Goñi, Seaskako lehen irakaslea

Aukera ugari hik hasi udako
topaketa pedagogikoetan

Bigarren Hezkuntzako irakasleen prestakuntza

ASKAGINTZA elkartea: Osasun heziketa eta droga-menpekotasunen prebentzioa eskolan

Historiako zertzeladak: Gipuzkoako Fraisoro sehaska etxea: haur abandonatuen trataera XX. mendearen lehenengo hamarkadetan

Hezkuntza geurea eta solidarioa

Zientzia
abstraktua ala ulergarria?

Argazkiak eta Matematika

III Hik Hasi Udako Topaketak: 700dik gora dira dagoeneko izana eman dutenak

Haur txikiak eta hiriak aztergai
izango dira maiatzaren 25ean Bilbon

Historiako zertzeladak: Julia Fernandez Zabaleta maistra nazionalista

Merezi al du prestakuntza euskaraz eskaintzeak?

MARTINEZ, Orlando. ROMERO, Oscar.

Haur-jolasen abestiak III CDa eta zinta kaleratu berri ditu HIK HASIk

Txanela Proiektua
Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako ikasmaterial globalizatua

Gipuzkoako Berriztapen Proiektuen I Jardunaldiak

Haur jolasen abestiak III

GARAIGORDOBIL, Maite:

UGARO ikastetxea, Legorreta: Pasaporterik gabeko bidaia Saharara

HIK HASI Udako Topaketa Pedagogikoen arrakasta handituz doa

Historiako zertzeladak: Euskarazko alfabetatzea XIX. mendean: inprentaren baldintzapena eta eragintza

Kultura erreferenteak oinarrizko hezkuntza curriculumean

ARANBURU, Pedro:

IKASBIDE ikastetxea, Donostia: eIkasbide proiektua. Haur eta Lehen Hezkuntzan IKTBak epe motzean
integratzeko modua

Eraso guztien gainetik euskal hezkuntza sistemarengako konfiantza azaldu dute irakasle, guraso eta administrazioak

Badator *Jolasen altxorra* bideoa

Historiako zertzeladak: Elbira Zipitria, euskal
eskolaren izen mitikoa

Hezkuntza gizartearen zerbitzura egotea guztion ESKUBIDEA da

Eraiki dezagun denok Euskal Eskola Publiko Berria

ZULAIKA, Luis Mari:

GAUTEGIZ ikastetxea, ARTEAGA: Mugak gaindituz, eskola handitu

Eskolen arteko postatrukea

Ikastolen Elkartearen joko didaktikoek jolasa eta ikasketa uztartzen dituzte

Kukurruku! Zer diozu?
Ipuinak, poemak, esaera zaharrak, musika eta elkarrizketak biltzen dituen CD berria

Historiako zertzeladak: IKAS, kultur elkartetik euskal pedagogia zerbitzura

Hezkuntzan parte hartzea
behar-beharrezkoa da

Bizitza osoan zehar ikasten. Florentziako foruma

MENDEBALDEKO SAHARA: Gazuaniako Lanbide Eskola.

Zorionak Ipurbeltz!

0-3 zentroak: hezkuntza eskaintzea helburutzat eta ez laguntza eskaintzea

Mundu berri bat posible da oraindik.
Abia gaitezen!

Kuba, hezkuntza eredu berrien bila jarraitzen duen herria

BATISTA, Iris:

Euskal Herriak bizi behar badu, euskal hezkuntza eta komunikabideak ezinbestean behar ditu.

Hezkuntza Komunitate Dialogikoak. Partaidetasuna eta eraldakuntza oinarri dituen ametsa

HERNANDEZ, Pedro:

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak urrats berri bat eman du

Historiako zertzeladak: Euskadiko haurren babesa eta hezkuntza guda zibilean

Etengabeko ikaskuntza egungo gizartearen erronka

Bruselako Foyer zentroa. Etorkinak integratzeko ahaleginean

DE SMEDT, Hilde:

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

IV. Hik Hasi Udako Topaketak
Uztailaren 1, 2 eta 3an burutuko dira Donostian

Historiako zertzeladak: Praktizismoa edo kultura. Bigarren Hezkuntza Bilbon, Erregimen Zaharraren amaieran

MURILLO, Javier:

Zientzia, teknologia eta lanbideak Euskal Herriko testu liburuetan

SAN TELMO ETXOLA: Ugaztun hiztunak gara

Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan giltzarri1

Ikastoletako lehen andereñoak aipatuak izan dira,
noizko haien eskubideen aitorpena?

Euskal Eskola Publikoaren Legea
10. urteurrenean

Euskal Eskola Publikoaren Legeaz mahai ingurua: Ana Eizagirre,
Iñaki Etxezarreta, Marije Fullaondo.

IKAZTEGIETAKO HERRI ESKOLA: Zer dira janari transgenikoak?

UEUko Sexologia Saila: Goazen sexologia aztertzera eta bizitzera

*Lagunarteko Hizkerarekin jolasean* . TTAKUN Kultur Elkartea eta URTXINTXA Astialdiko Eskola.

Ikertzeko, hausnartzeko eta proposamenak
egiteko garaia da. Abia gaitezen!

Euskal testu liburugintza XXI. mendearen atarian

IZTUETA, Anjeles:

LAREKI, Arkaitz: Nola irakasten dute DBHko irakasleek?
Irakasteko modu berri bat baliabide teknologikoak erabiliz

Birakusi aldizkaria eta web gunea

Ipolagun taldeak Mexikoko haurrei laguntzeko deia egiten du

Egin dezagun Salt solidarioa... baita helduen prestakuntzan ere1

Muga guztien gainetik... euskaraz! ASSA ikastola, La Puebla de Labarca

Guztientzako eskola
Eskola barneratzailea

ADARRA Pedagogi Erakundea:

IKASBIDEA ikastola, Gasteiz: Kantuz blai

Zer diote etorkinek1?

ARGENTINA. Euskal Herriko lanbide eskoletako makinak Argentinako

- Txirulaz (Liburua)
- Txirulaz II (Liburua). AGORTUTA
- Txirulaz (CDa) AGORTUTA
- Gitarraz (Liburua)
- Eskusoinuaz (Liburua)
- ASCHERO metodoa: Ostadarraren hotsaz (Liburua)
- Pianoaz (Liburua)
- Haur-jolasen abestiak (CDa) AGORTUTA
- Haur-jolasen abestiak II (CDa) AGORTUTA
- Haur-jolasen abestiak III. (CDa) AGORTUTA
- Kukurruku! (CDa)
- Zatoz jolastera! (DVDa)

ikastetxetara eraman dira

Hezkuntza, etorkizuna prestatzeko eztabaida guztien erdigunean

Lanbide Heziketaren osasuna Ahuleziak eta indarguneak

AINSCOW, Mel: "Eskola barneratzaileagoak lortzeko, eskolan lan egiteko moduak aldatu egin behar dira. Eskola kultura aldatu behar da"

PORTER, Gordon I.: "Arrakasta lortzeko gela berezirik ez dugula behar erakutsi dugu"

Didaktika integratzailearen ekarpenak

FRANTZIA: Hezkuntza eztabaida

Muga guztien gainetik...euskaraz! OZTIBARRE ikastola, Izura: Lau alokutibo formatan jarduten duen eskola bakarra

Izena batzuek, eta izana besteek.
Nork inposatzen du hemen bere hezkuntza?

Familia ereduak eta eskola

Saharako ikasleak Zornotzan
Hizkuntzen oasia

Hezkuntza sistemen trukea: Euskal Herria eta jatorrizko herriak

Muga guztien gainetik... euskaraz! ARANGOITI ikastola, Irunberri. Elkartasunaren ikastola

Hezkuntzaren egiteko nagusietakoa bazterketaren aurka jokatzea da

0-3 urteko haurrak eta euren eskolak

PETUYA, Alazne:

MENDILORRI IV eskola, Iruñea: ...eta Miróren koadro bat jakintza iturri bihurtu zen

Haur etorkinei hizkuntza nola irakatsi. Oinarrizko prestakuntzak eta jokabideak1

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BEURKO institutua, Barakaldo: Irratia, mintzamena lantzeko makina

086: Zer egin hezkuntza egiturak haurra kontuan hartzen ez duenean?

FERNANDEZ ANGUITA, Mariano:

BILETXEA ikastetxea, Baigorri: ERRAMOUSPE, Mikel: Kantuaren herri kultura bizia

Nafarroako Sortzen-Ikasbatuazen etorkinentzako proiektua

Muga guztien gainetik... euskaraz!: ARRATIA BAILARAKO ESKOLAK: Herrian sareak sortu, Europan hizkuntza gutxituen trukea

087: Eskolan politika bai, alderdikeriarik ez.
Erlijioa bai, adoktrinamendurik ez.

GARMENDIA, Jesus:

KRAKOVIAko haur eskolak, Polonia: Krakoviako haur eskolak ezagutzen

ELKAR-BIDE programa. Ipar-Hegoko eskolen trukeak

ETXANIZ, Pello: Hizkuntza testa DBHko 1. mailako ikasleentzat

AEK eta Soraluzeko herria elkarlanean herriko haur etorkinak euskalduntzeko

Muga guztien gainetik... euskaraz!: BIDARRAIKO eskola publikoa, Bidarrai: Iparraldeko paradisu ttippia, B ereduan

088: Eskola hobetzekotan espiritu kritikoa sustatu beharra dago

Harrera etxeak eta familiak

MARFEEI, Marta:

PELLO ERROTA ikastetxea, Asteasu: Bazen behin... gure aitona-amonen kontu aberatsak

**SUKARRIETA Taldea: Ingurumen hezkuntza. XXI. mendeko moda ala erronka?**

Modenako (Italia) 0-6 urteko udal haur eskolak Europan eredu

Artearen txokoa: euskal gizartea ulertzeko beste bide bat

Muga guztien gainetik... euskaraz!: EL SALVADOR MARISTA ikastetxea, Bilbo: Bilboren bihotzean D eredu gora

089: Zertan ez dugu asmatu etorkin batek

Etorkinak; aniztasuna eta elkarbizitza

ERNIOBEA institutua, Billabona-Amasa: Euskal arte garaikidea gelara

MARTINEZ, Iñaki: Desberdinak al dira herrietako eta hirietako ikasleak? Horren nabarmenki? Zertan? Nola?

Udako Topaketak: gozartu, erlaxatu, ikasi

Muga guztien gainetik... euskaraz!: Koldo Mitxelena institutua, Gasteiz: Erabilera eta kalitatea hobetzeko ideien fabrika

Begiradaren heziketa eskolan

- Jolasen Altxorra (DVDa)
- Ilargiaren sekretua (DVDa)
- Begiradaren heziketa (DVDa+Liburua)
- Gazteak eta euskara
- Etorkinak gure eskolan AGORTUTA
- Ilunetik argira. Elbira Zipitria
- Haur-gaztetxoen marrazki ekoizpenaren bilakaera AGORTUTA

**COSIDO, Jesus:**

**5 urteko haurrak mezu elektronikoak idazten**

**"Bidelagun" etorkinekin**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: BERNAT ETXEPARE lizeoa, Baiona: Euskararen gotorlekua**
**Euskararen gotorlekua**

**092: Eskola antolaketak eragina izan dezake berdinen arteko harremanetan**

***Bullying* -a aurrez aurre**

**URRUTIA, Iñigo:**

**BIDEBIETA Institutua, Donostia: Espezie exotikoak: turistak ala inbaditzaileak?**

**Marokoko hezkuntza sistema**

**Muga guztion gainetik... euskaraz!: BALLONTI BHI, Portugalete. Portugaleteko misio lana**

**093: Hiru Sareta: elkarrekin bai, indarrak batuta obe**

**Mendebaldeko Sahara, itxaropenaren baitan**

**Web gune interesgarriak**

**Muga guztien gainetik... euskaraz: ARGANTZON ikastola: Trebiñuko arabarren ikastola**

**Ilunetik argira Elbira Zipitria deskubritzen duen liburua**

**094: Euskara ezagutzeko eskubidea eta betebeharra**

**Nor gara gu? Zer gara gu? Testu liburuek diotena**

**ARROY, Igor:**

**Familia eredu askotarikoak eskolan. Familia ereduak lantzeko materiala**

**EGIZABAL, Diego: Kuadrillategi egitasmoa. Koadriletan euskara erabiltzeko saiakeraren emaitzak**

**AGIRREAZALDEGI, Alberto:**

**Elbira Zipitriaren ibilbidea gogora ekarri dute bere lankide eta ikasleek. Liburuaren egileekin bildu ziren haren txokorik maiteenak bisitatzeko**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: GARRALDAKO eskola, Garralda: Eskualdeko haurren topagune**

**095: Europarako Konstituzio Itunak ez ditu hizkuntz eskubideak jasotzen**

**Droga menpekotasunen prebentzioa**

**SAENZ, Maite:**

**www. apoa.net Ipuin didaktikoak sarean**

**ZANGOZA ikastola, Zangoza: Artista txikien aztarnak Zangozako ikastolako atarian**

**Ama hizkuntza, eskolako hizkuntza eta eskolatzea**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: EPERRA Ikastola, SohÃ¼ta: XibÃ¼tarren habia**

**GIMENO SACRISTÁN, José**

**097: Beste mundu bat posible da; hezkuntza eguneratuz eraiki dezagun**

**Autoritatea. Mugak jarri ezinik**

**TEDESCHI, Maddalena; PICCININI, Sandra:**

**Kataluniako Hezkuntzarako Gizarte foroa**

**MONTORRE ikastetxea, Gautegiz-Arteaga: Planoa eskuan eta ibili munduan. Orienteering Arteagan zehar**

**Ezagutu ditugu Reggio Emiliako (Italia) 0-6 udal haur eskolak**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: LEMOIZEKO eskola: Herri txikiarentzat bizitza**

**098: Iruñerriko D ereduko ikastetxeen egoera: hazi bai, pilatu ez**

***M-learning* : joan eta ikertu**

**BETTO, Frei:**

**HUEGUN, Axier: Zer dio gorputzak hezitzen ari garenean?**

**ZANGOZA ikastola, Zangoza: Jarrerek badute zeresana Zangoza ikastolan**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: PEDRO LOPE DE LARREA, Agurain**

**099: Anjeles Iztueta, lau urtez EAEko Hezkuntza sailburu**

**ARRASATEKO BHI, Arrasate: Lan kooperatiboa**

**LA FARGA ikastetxea, Salt (Girona): Haur etorkinak integratzeko harrera gela**

**Udako Topaketak: 500 irakasleren bilgune**
**Izena emateko epea pasa bazaizu, oraindik bada lekua zenbait ikastarotan**

**Muga guztien gainetik... euskaraz!: ELORTZIBAR ikastola, Elortzibar**

**LIZARRA ikastola, Lizarra: Euskara herriratzen dakiena**

**Amnesiaren gaitz mortala**

**Ikastetxearen hezkuntza asmo nagusiak**

**MONTERO, Jose Luis:**

**IBARZABAL, Eugenio:**

**Summerhill Donostian. Sutan gordetako oroimena**

**Emakumeen lanbide prestakuntza formalizatuaren hastapenak (1880-1930)**

**Geometriako aktibitateak prestatzeko proposamena DBHn (12-16 urte)**

**LABIAGA ikastola, Bera:**

**GAYARRE ikastetxe publikoa, Erronkari: Erronkaribarra, belaunaldi berria iragana eta geroa uztartuz**

**Antzuolako herri eskola:**

**Haur eskolak**

**AURREKOETXEA, Manu:**

**LANGAITZ, ikastola, Orereta-Errenteria: Gurasoak euskalduntzen**

**SAN JOSE DE CALASANZ, ikastetxe publikoa, Donostia (Altza): Ohitura eta baloreak lantzen**

**ARAMENDI, Peio: Erreforman agertzen diren oztopoak**

**Euskal maisu-maistren garbiketa Gerra Zibilean eta Frankismoaren hasieran**

**Irakasle-ikasleen arteko harremanak**

**Errenteriako PAT:**

**R. M. de AZKUE ikastola, Lekeitio: Non(d) (hik) hasi?**

**Frankismoaren garaiko etxe eskolaren esperientzia Bizkaian**

**Lanbide Heziketa**

**AREVALO, Jorge:**

**IKASLAN: eremu publikoan elkarte pribatuak**

**TOLOSALDEKO Lanbide Heziketako institutua, Tolosa: Etxebizitza baten elektrifikazioa**

**Lanbide Heziketa berria: Javier Mardonesekin solasean**

**Ikastea ez da hartzea**

**LUKAS, J. F.:**

**TOKI-ALAI herri ikastetxea, Irun: Irakurketaren zaletasuna bultzatuz**

**SANCHEZ, Seve: Lanbide Heziketa berria eta euskara**

**Urrutiko euskal eskola: Euskadi-Venezuela ikastola (1965-1986)**

**HAMILTON, David:**

**BIURDANA (Iruñea) eta ASAKATASUNA (Burlata) institutuak: DBHren ezarpena Nafarroako institutuetan**

**AIAKO herri eskola, Aia: Euskal giroko herrietan erdara nola landu**

**Irakasleriaren osasuna**

**AIZARNA, Kontxi:**

**SUBIL: Euskal kukturan zeharreko bidaia**

**Haurrek eskubidea dute errealitatearen osotasuna ezagutzeko. Artzain Oneko 36. Txanda, hezkuntzako langileak**

**AVE MARIA ikastetxe publikoa, Errotxapea: Euskararen lehen urratsak erdal giroko eskoletan**

**BELGIKA: Belgiar estatuko hezkuntza sistemak**

**Edozein kulturatan ematen den heziketa, komunitatezkoa zein formala**

**IZARRAKO herri eskola, Izarra: Euskararen fruituak erdal baratzean**

**LABIAGA ikastola, Bera: Berako ikastolaren borroka**

**DANIMARKA: Danimarkako hezkuntza sistema**

**GOROSTIDI, Jose Luisen omenez**

**Freineten 100. urteurrena**

**DOBH, EAEko ertainetako erreforma**

**ELKARRI:**

**TAFALLAko ikastola, Tafalla: Irakurketa-idazketa konstruktibismoaren ikuspegitik**

**AITOR ikastola, Donostia: Oihala igo eta funtzioa hasten denean**

**BRITANIA HANDIA: Ingalaterra eta Galeseko hezkuntza sistema**

**RIZZI, Rinaldo:**

**OIARTZUNGO MUSEO BATZORDEA:**

**Demokrazia irakaskuntzan**

**Gipuzkoako Haur Eskolan Koordinakundea: Haur Hezkuntza. Lehen zikloa?**

**Badator, badator, euskal eskola publikoaren festa**

**ARANO, Rosa MÂª: Txingudi ikastolako hizkuntza plangintza**

**Tertulixak: autoheziketa modu bat**

**IRLANDA: Irlandako Hezkuntza Sistema**

**Haurrekiko tratu txarrak aztergai**

**KORTESEKO ikastola, Kortes: Hegoaldeko mugaraino euskaraz**

**EPERRA ikastola, Sohüta:**

**ETXEBERRIA, Elias:**

**IBAIALDE 97. Ezagutu eta maitatu**

**LÂeducazione italiani**

**19: Handik eta hemendik euskal eskakizunei erantzun behar nonahi**

**Hezkuntzako beste hezitzaileak**

**Eskola txikien koordinazioa: Gernika inguruko eskola txikien esperientzia**

**JOSE ARANA ikastola, Eskoriatza: Haurtxoteka, liburutegia baino gehiago**

**FUNES, Jaume: Nerabetasuna**

**SAN JOSE DE CALASANZ, Donostia: A eta B ereduetatik D eta B ereduetara**

**Badator EAEra DOBHren ezarpena**

**UGARTETXEA, Arantxa:**

**Ikasbatuaz; pauso sendoak emanez**

**SUEDIA: Suedia, lan eta familia betebeharrak orekatuz**

**OIARBIDE, Josi; ZABALA, Xabier: Haur-jolasen abestiak:**

**Adimena eta autoestimua irakaslearen zeregina**

**SUITZA: Suitzako banka sekretuak, txokolatea eta eskolak**

**Zer irakur dezakegu irakasle, ikasle eta gurasook?**

**Haur-jolasen abestiak**

**ELORZA, Juan mari; EZKIAGA, Patxi; LARREA, Jose Luis:**

**24: Euskara eta Euskal Heziketarekiko erasoak areagotu diren honetan euskararen aldeko jarrerak inoiz baino biziago**

**Etxerakolanak: betiko eztabaida**

**NORVEGIA: Norvegia: eskola publikoaren ugaritasuna**

**Hezkuntza kooperatibak**

**DONIBANE-LOHITZUNEko ikastola, Donibane-Lohitzune: Donibane-Lohitzuneko Ihauteri ttiki eguna**

**PORTUGAL: Atlantiar kresalaren bila Portugalera**

**KARMENGO AMA ikastetxea, Trintxerpe: Eskolaren funtzio aldatzailea.**

**ARTZAIN ESKOLA, Arantzazu: Eskoletatik ateratako artzainak**

**SUEDIA: Suediako haur zerbitzuak eta eskolak ezagutzen**

**028: Eskola berriaren gorpuzketan ezinbestekoa den nazionaltasunari ekin zaio**

**URANGA, Marije:**

**URRETXU-ZUMARRAGA ikastola eta TERRASAKO eskola publikoa: Elkatrukea, harremanak bideratuz**

**FINLANDIA: Eskandinaviari begira**

**IPAR HEGOA Fundazioa: Euskal eskolaren azken hogei urteak. MARTÃ, FelixI elkarrizketa**

**Haur eskola txikietako irakasleen**

**ALVAREZ, Manuel:**

**Herri Eskolen Mugimendu Kooperatiboaren 26. Kongresua**

**Europako irakasleen ordutegiak eta ordainsariak**

**Argentinako irakasleak urtebetez barau greban**

**Jaione Apalategi: "Hezkuntzak duen galerarik handiena, bere zientzia den Pedagogiak, oraindik ere, behar duen independentzia lortu ez izana da "**

**JARA, Cesar: "Irakasleek ez dakite ezer bigarren hizkuntza bat**

**Ikuspegi pedagogikotik bidegabekeria bat da**

**Ikasle etorkinak haur hezkuntzan (1)**

**Enpresa berriak sortzeko kultura ereiten da ikasleengan:Lea-Artibaiko Azaro fundazioa**

**Beldurraren aretoa, Galtzagorri Elkarteak beldurrezko ipuinen inguruan osatutako erakusketa**

**Ikasle etorkinak Haur Hezkuntzan:Hizkuntzen trataera ikasle etorkinekin**

**OLVERA, Angelica:Familia Sistemikoko aditua eta ikerlaria."Sustrairik gabe, hegorik ez dago. Eskolatik erreskatatu egin behar dira familiaren historia eta testuinguruaren historia**

**107:Kataluniako Hezkuntza Itun Nazionala: eskola guztientzako onura**

**ETXENIKE Pedro Miguel: EHUko Fisikako katedraduna. DIPCko lehendakaria**

**Usurbilgo haur eskola: Haurdun dauden amak haur eskolan**

**Kamishibai: Japoniako ipuinak...euskaraz**

**Etorkizuna ikastola, Abanto-Zierbena:One Europe, variety of cultures**

**La Inmaculada ikastetxea, Hernani : Ikasle etorkinak etxekotzen**

**Alboan fundazioa herrien elkartasunaren alde lanean**

**ETXEKO IRAKASKUNTZA**

**JOSU TXAPARTEGI**

**Busturialdeko Eskola Txikiak**

**JA-LING, ETORKINAK ETA GU BATZEN**

**JURJO TORRES, A Coruñako Unibertsitateko katedraduna**

**Zer baldintza behar dira ikasleek gustura ikasteko?**

**Hizkuntz ereduak: goazen harira**

**Eguna edukiak irakasten pasatzen bada, nondik atera denbora haurren kezkak, sentimenduak, arazoak... lantzeko?**

**Eraldaketa prozesuak. Parte-hartzean oinarrituriko metodologiak bideratuz.**

**PEDAGOGIA SISTEMIKOA**

**Hizkuntzen irakaskuntza iritsi berriekin**

**Miguel Gonzalez: "Alboanen unitate didaktikoek kanpo zorraren gaia modu sinple eta ulerterrazean lantzen dute"**

**ESTRUCH, Joan: Autonomiak garrantzia du, baina ez da hezkuntza sistemak dituen gaitzen irtenbidea**

**Gasteiz: Kultur aniztasuna: auzotik eskolara eta eskolatik auzora**

**Herri indigenak**

**HOPKINS, David: Hezkuntzak ez du irakaskuntzara soilik mugatu behar; eskolak ekarpena egin behar dio gizarteari**

**BESALU COSTA, Xavier: Kulturarteko hezkuntza**

**Hazitegi proiektua: 0-6 urteko haur eskolak**

**Waldorf pedagogia**

**Isabel Celaá. "Hezkuntza edozein herrialderen eraldaketarako ardatz nagusia da**

**Pikler Institutura: Bilbotik Budapesteko**

**Etorkinen seme-alabak eskolan: zer aldatzen ari da?**

**Eskola Txikiak. Dagokienaren eske**

**Nazioarteko hezkuntza. Egoerak eta erronkak**

**Adimen emozionala. Beste hizkuntza bat**

**Emmi Pikler (II). Jatorduetako zaintza**

**BILBATUA, Mariam: Metodologian hausnarketa sakona egin behar dugu. Zergatik ez dituzte konpetentzia handiagoak lortzen ikasleek? Hori da gakoa**

**PUJOLAS, Pere: Nazioarteko erakundeen arabera, hezkuntza sistema guztiek ikuspegi inklusiboa izan beharko lukete**

**PISA frogen hamaika irakurketa**

**Joseba Azkarraga: "Kontua ez da zelan sortu eskola ona, gizarte hezitzailea nola eraiki baizik"**

**Neus Samarti: "Ebaluazioa aldatzeko, azterketako galderak aldatu behar dira. Ez galdetu 'Egin lorearen marrazkia, eta idatzi zatien izenak', hau baizik: 'Mendira joan garenean, amak esan dit loreak ez puskatzeko. Zergatik?'·**

**Hezkuntzari erasoaldiaren irakurketa eta erantzuna**

**Zer esango zenuke irakasleen prestakuntzaren gainean**

**Joxe Amiama: "Eskola eta familia helburu bera duten bi sistema desberdin dira. Elkar onartu behar dugu eta gizatasun handiagoz jokatu"**

**Hezkuntza aztergai latinoamerikan**

**Venezuela, Bolivia eta Nikaragua Kubaren bidetik**

**Dolors Quinquer: "Ikasleak irakurle kritikoak izatea garrantzitsua da sarean dagoen informazio guztiarekin. Hori ikasi egiten da, eta horretarako, hezi egin behar ditugu"**

**Kubako eta Euskal Herriko haurrak baturik, liburuen eta antzerkiaren bidez**

**Sakanako ikastolen komunikazio-plana Ikastoletako lana gizarteratuz**

**Zer da garrantzitsuena irakasleak ongi prestatzeko?**

**Nafarroako landa eremuko eskolak: Txikitasunak elkarturik**

**Bikotekaka Irakurtzen, parekoen arteko ikaskuntza bultzatzen duten ikastetxe euskaldunen sarea**

**Bikotekaka Irakurtzen, parekoen arteko ikaskuntza bultzatzen duten ikastetxe euskaldunen sarea1**

**EAEko HH eta LHko Eskola Publikoko XXX. topaketak**

**Kataluniako hezkuntza eraberritzailera bidaia**

**Xamar: "Euskararen normalizazioaren arazoa ez da pedagogikoa soilik, soziala da, alegia, politikoa. Kalean dagoen zerbait da, eskolak ezin du konpondu"**

**Zer da garrantzitsuena irakasleak ongi prestatzeko?**

**Gure adimena nola eta norantz gidatu ikasten**

**Adimen emozionala: irakasleen gizakitasuna**

**Antzerki irakasle jantziak, antzerkiaren balioak hedatzeko**

**Familia eta irakasleriaren arteko harremanak**

**Nola neurtzen da irakaskuntzaren eta ikasketaren kalitatea?**

**Bizi Toki Ikasiz bizi, bizitzen ikasiz**

**Geroa eskola. Waldorf pedagogian oinarritutako eskola bakarra Euskal Herrian**

**Ikas komunitateak eskolatik haratago**

**Kulturarteko hezkuntzaren ikuspuntutik begiratuta zer da kulturarteko ikastetxe bat?**

**Literatura klasikoa ikasleen eskura**

© 2005